## INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

## 2193

AGINDUA, 2005eko apirilaren 14koa, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena, enpresak nazioartekotzeko beken programa arautzen duena.

Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren helburuetariko bat Euskadiko enpresak nazioartean ezagunagoak izan daitezen beharrezko baldintzak sortzea denez, eta helburu hori lortzeko, Kanpoko Merkataritzan behar bezala kualifikatutako adituak behar direla kontuan hartuta, Sail honek nazioarteratze-adituak prestatu nahi ditu.

Proiektuok portu onera helduko badira, beraz, martxan jartzeko lanei ekiterakoan ezinbestekoa da enpresek nazioarteko gaietan ondo prestatutako langileak izatea, gogoz langintza horri ekiteko gai izango direnak.

Programa honen bitartez, bidea ematen diegu euskal gazteei lan-munduan sar daitezen, eta, aldi berean, enpresei ere laguntzen diegu, beren kanpoko merkatuak zabal ditzaten.

Horrenbestez, honako hau

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA
XEDAPEN OROKORRAK

*1.– artikulua.* Xedea.

1.– Agindu honen xedea Nazioarteratzeko Beka Programa arautzea da.

2.– Xede hori iristeko, bi eratako bekak erabiliko dira:

2.1.– Kanpo-merkataritzan Adituak Prestatzeko Bekak eta Nazioartekotutako Enpresetan eta nazioartekotzea sustatzen duten beste erakunde batzuetan Praktikaldiak egiteko Bekak.

2.2.– Era berean, bi beka-mota horiek bi bide izango dituzte:

a) Nazioartekotzea sustatzen duten enpresa eta erakundeak hautatuko dira, programa honetan lankide izan nahi dutela-eta, bekadunak praktikaldietarako hartu nahi dituztenen artean.

b) Euskal Autonomia Erkidegoan eta atzerrian praktikak egiteko bekak emango dira, nazioartekotutako enpresak eta nazioartekotzea sustatzen duten beste erakunde batzuk ere lankide direla.

3.– Programa honetako diru-laguntzak ez dira itzuli behar, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekon-

## DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

## 2193

ORDEN de 14 de abril de 2005, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula el programa de becas de internacionalización.

Siendo uno de los objetivos del Departamento de Industria, Comercio y Turismo la creación de las condiciones necesarias para conseguir una mayor internacionalización de las empresas vascas, y, requiriendo para alcanzar tal fin la existencia de profesionales debidamente cualificados en el área del Comercio Exterior, se considera conveniente que la intervención del Departamento se dirija a la Formación de Becarios de Internacionalización.

El éxito de los proyectos depende de las personas que participen en su puesta en marcha, por tanto es fundamental para las empresas contar con personal capacitado, motivado y adecuadamente formado en el área internacional.

A través de este programa facilitamos la incorporación de los jóvenes vascos al mundo laboral y en consecuencia apoyamos a las empresas en sus labores de expansión en los mercados exteriores.

Y en virtud de ello,

DISPONGO:

CAPÍTULO I
DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1.–* Objeto.

1.– Es objeto de la presente Orden la regulación del programa de Becas de Internacionalización.

2.– Dicho objeto se instrumentará a través de dos tipos de becas:

2.1.– Becas de Formación de Expertos en Comercio Exterior y Becas para realizar Prácticas en Empresas Internacionalizadas y otros organismos de promoción de la internacionalización.

2.2.– Estos dos tipos de becas se instrumentarán a través de dos mecanismos:

a) La selección de las empresas y de los organismos de promoción de la internacionalización que deseen colaborar en este programa incorporando un becario en prácticas.

b) La concesión de becas para la realización de prácticas en el País Vasco o en el extranjero en colaboración con empresas internacionalizadas y otros organismos de promoción de la internacionalización.

3.– Este programa de ayudas tendrá la consideración de subvenciones no reintegrables y se encontrarán so-

tu Orokorren kontura diru-laguntzak emateko indarrean diren arauak bete beharko dira.

4.– Agindu honen bidez arautzutako diru-laguntzak emateko, lehiaketa-prozedura bana erabiliko da, bekamotetako bakoitzerako. Beraz, 8. artikuluan zehaztutako balorazio-irizpideak eta hautaketa-prozedurak erabilita, baldintza horiek betetzen dituztenei emango zaizkie laguntzak, laguntza-mota bakoitzean dagoen beka-kopurua bete arte.

*2. artikulua.–* Baliabide ekonomikoak.

Aurreko artikuluan aipatutako helburua betetzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan bi beka-mota horietako bakoitzerako dauden aurrekontu-kredituetatik hartuko dira baliabide ekonomikoak. Ezin izango da ekitaldiko aurrekontuetan onartutako diru-laguntzetarako kopuru osoa baino diru gehiago eman, ez eta, baldin eta, indarrean dagoen legediaren arabera aurrekontuak aldatzea onartuta, halakorik gertatzen bada, aurrekontuak eguneratzean onartzen diren aurrekontu-kredituetan onartutakoa baino gehiago ere.

*3. artikulua.–* Onuradunak.

1.– Ondorengo baldintzak betetzen dituzten pertsona fisikoek jaso ditzakete bekak:

a) Administrazio-egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan izatea, eskaerak egiteko epea irekitzen den unea baino gutxienez 12 hilabete lehenagotik. Hala eta guztiz ere, aurretik EAEn erroldatuta egonik, Erkidegotik kanpo goi-mailako ikasketak egin izanagatik antzinatasun-baldintza hori betetzen ez duten eskatzaileak onartuko dira, betiere EAEn berriz erroldatu badira eskaera aurkezteko epea ireki baino gutxienez 6 hilabete lehenagotik.

b) Izangaiek tituludunak izan behar dute: Lizentziatu, Ingeniari, Arkitekto, Diplomatu, Ingeniari Tekniko edo Arkitekto Tekniko; betiere, Tituluak Unibertsitate Titulu Ofizialen Katalogokoekin homologatzeari buruz irailaren 30eko 1954/1994 Errege Dekretuak ezarritakoaren arabera.

Atzerrian edo publikoak ez diren Espainiako zentroetan lortutako tituluek homologatuta egon beharko dute, eskaerak aurkezteko epea irekitzen den unean.

c) Eskabidea aurkezteko epea zabaltzen den egunean, 28 urte bete gabe izatea.

d) Atzerriko hizkuntza bat jakitea; eta Kanpo Merkataritzako Adituak Prestatzeko Beketan, atzerriko bigarren hizkuntza bat nahiko ongi ezagutzea ere eskatuko da.

e) Aldez aurretik horrelako edo antzeko bekarik jaso ez izatea, edukiari edo helburuari dagokionez; ezta bestelako bekarik ere, betiere eskatutako titulazioa lortu ondoren Alde Askotariko Organismoetan edo Eusko Jaurlaritzaren atzerriko Ordezkaritzetan praktikak egiteko aukera eman badute.

metidas a la normativa vigente reguladora de las subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

4.– Las becas reguladas en la presente Orden se adjudicarán, entre los solicitantes de cada modalidad de becas, mediante sendos procedimientos de concurso, de forma que atendiendo a los criterios de valoración y procesos de selección contemplados en el artículo 8, sólo se concederán a los candidatos que los superen hasta cubrir el número de becas que se convoquen en cada modalidad.

*Artículo 2.–* Recursos económicos.

Los recursos económicos destinados a la finalidad del artículo anterior procederán de los correspondientes créditos presupuestarios establecidos al efecto para cada uno de los dos tipos de beca en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco. El volumen total de las ayudas a conceder dentro de un ejercicio presupuestario no superará la citada consignación o la que resulte de su actualización, en el caso de que se aprueben modificaciones presupuestarias de conformidad con la legislación vigente.

*Artículo 3.–* Beneficiarios.

1.– Podrán acceder a las presentes becas las personas físicas que reúnan los requisitos siguientes:

a) Vecindad administrativa en la Comunidad Autónoma del País Vasco con antigüedad superior a 12 meses, en el momento de la apertura del plazo de solicitud. Se admitirán, no obstante, aquellos solicitantes que habiendo estado empadronados en la CAPV anteriormente, no cumplan el requisito de antigüedad exigido por motivos de realización de estudios superiores fuera de la Comunidad, pero que se han vuelto a empadronar en la CAPV con una antigüedad superior a 6 meses en el momento de la apertura del plazo de solicitud.

b) Titulación de Licenciado, Ingeniero, Arquitecto, Diplomado, Ingeniero Técnico o Arquitecto Técnico, conforme al Real Decreto 1954/1994 de 30 de setiembre, sobre homologación de títulos a los del Catálogo de Títulos Universitarios Oficiales.

Los títulos obtenidos en el extranjero o en centros españoles no públicos, deberán estar homologados en el momento de la apertura del plazo de solicitud.

c) No tener cumplidos 28 años el día de apertura del plazo de solicitud.

d) Dominio de un idioma extranjero, exigiéndose para las Becas de Formación de Expertos en Comercio Exterior conocimientos suficientes de un segundo idioma extranjero.

e) No haber sido beneficiario de becas de igual o similares características en cuanto a su contenido y objetivo de las mismas, así como de otras becas que tras la obtención de la titulación exigida hayan posibilitado realizar prácticas en Organismos multilaterales o Delegaciones del Gobierno Vasco en el extranjero.

2.-Nazioartekotzea sustatzen duten enpresa eta erakundeek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Enpresa esportatzailea edo nazioartekotzea sustatzen duen erakundea izatea, eta egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan izatea.

b) Ahal dela, merkataritza- edo ekoizpen-establezimendu bat gutxienez atzerrian izatea, baldin eta praktikaldia euskal enpresa atzerrian ezartzeko lanetan egiten bada.

Nazioartekotzea sustatzen duen erakundea denean, atzerriko erakunde batekin lankidetza-hitzarmena izan beharko du sinatuta, eta hortxe kokatu beharko da praktikaldian dagoen bekaduna.

c) Bekadunarentzako jarduera- eta prestakuntza-plana egitea, bekaldi osorako.

## II. KAPITULUA
## DIRU-LAGUNTZEN EZAUGARRIAK

***4. artikulua.***– Laguntzen zenbatekoa.

4.1.– Kanpo Merkataritzan Adituak prestatzeko bekak.

Beken iraupena hemezortzi hilabetekoa izango da, eta Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak diru-kopuru hauekin hornituko du beka bakoitza:

Bekaren oinarrizko diru-kopurua 14.000 euro izango da. Diru-kopuru horretaz gain, bekadun bakoitzari beste osagarri bat eman dakioke bekaldia egin behar duen herrialdearen bizi-mailara egokitzeko, toki jakinetan bizitzeak eragindako gastuak estaltzeko, bidaia luzeetan jomugara heltzeko bidaia-gastuengatik, eta jomuga bakoitzeko behar ekonomikoetara behar bezala egokitzeko aintzat hartu beharreko bestelako arrazoiengatik, betiere gehienez 37.000 eurokoa izan daitekeela. Industria Berritzeko eta Garatzeko sailburuordeak urtero egunera ditzake aipatutako diru-kopuru horiek, betiere, bekaldia egingo den herrialdeko bizi-mailaren eta KPIaren aldaketak kontuan hartuta.

4.2.– Nazioartetutako enpresetan praktikak egiteko bekak.

Beken iraupena bederatzi hilabetekoa izango da, eta Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak 5.500 eta 23.300 euro arteko diru-kopuruekin hornituko du beka bakoitza. Beraz, aurrekontuetan erabilgarri diren kopuruen arabera, beka bakoitzak diru-kopuru bat izango du, praktikaldiak zein herrialdetan egin behar diren aintzat hartuta, herrialde horren bizi-mailari egokituko baitzaio kopurua, hiri jakinetako erdialdean bizitzeak eragindako gastuak estaltzeko, eta jomuga bakoitzeko behar ekonomikoetara behar bezala egokitzeko aintzat hartu beharreko bestelako arrazoiengatik, betiere, ezarritako muga horien barruan. Industria Berritzeko eta Garatzeko sailburuordeak urtero egunera ditzake aipatutako diru-kopuru horiek, betiere, bekaldia egingo den herrialdeko bizi-mailaren eta KPIaren aldaketak kontuan hartuta.

2.– Por otra parte las empresas y organismos de promoción de la internacionalización deberán cumplir los requisitos siguientes:

a) Ser empresa exportadora u organismo de promoción de la internacionalización y estar ubicada en la CAPV.

b) Contar, preferentemente, con al menos un establecimiento, de carácter comercial o productivo en el exterior en el caso de que las prácticas se desarrollen en la implantación de la empresa vasca en el extranjero.

En el caso de los organismos de promoción de la internacionalización, deberán contar con un acuerdo de colaboración con una institución en el extranjero, dónde se ubicará el becario en prácticas.

c) Elaborar un plan de actividades y formación del becario que abarque todo el periodo de la beca.

## CAPÍTULO II
## CARACTERÍSTICAS DE LAS AYUDAS

***Artículo 4.***– Cuantía de las ayudas.

4.1.– Becas de Formación de Expertos en Comercio Exterior.

El Departamento de Industria, Comercio y Turismo dotará cada beca, que tendrá una duración de dieciocho meses, con las siguientes cuantías:

El importe de la dotación básica de la beca será de 14.000 euros. Además, a cada becario podrá otorgársele un complemento por equiparación con el nivel de vida del país en el que se va a desarrollar la beca, para sufragar gastos por residir en determinadas zonas, por los gastos de viaje a su destino en el caso de grandes distancias, y otros a tener en cuenta para una buena adaptación a las necesidades económicas de cada destino, por un importe máximo de 37.000 euros. Dichos importes podrán ser actualizados en la convocatoria anual del Viceconsejero de Innovación y Desarrollo Industrial, con el objeto de tener en consideración las variaciones en el IPC y el nivel de vida de los distintos países.

4.2.– Becas para realizar prácticas en empresas internacionalizadas.

El Departamento de Industria, Comercio y Turismo dotará cada beca, que tendrá una duración de nueve meses, con una cuantía que oscilará entre 5.500 y 23.300 euros. La cuantía de cada beca variará, dentro de las disponibilidades presupuestarias, en función del país en el que se desarrollen las prácticas, por lo que la dotación se adecuará al nivel de vida del país de destino, para sufragar gastos por residir en zonas céntricas de determinadas ciudades, y otros a tener en cuenta para una buena adaptación a las necesidades económicas de cada destino, pero siempre dentro de los márgenes indicados. Dichos importes podrán ser actualizados en la convocatoria anual del Viceconsejero de Innovación y Desarrollo Industrial, con el objeto de tener en consideración las variaciones en el IPC y el nivel de vida de los distintos países.

*5. artikulua.*– Diruz lagundutako gastuak.

5.1.– Kanpo Merkataritzan Adituak prestatzeko bekak.

a) Bekarekin honako gastu hauek ordainduko dira:

– Bekaldia egingo den herrialdera edo ingurura joanetorria egiteko bidaia-txartelak.

– Herrialde hartako agintariek eskatzen duten bisatua edo bizitzeko baimena lortzeko gastuak.

b) Bekadun bakoitzaren istripu-asegurua (eta haren osagarri den bidaiarako laguntzako asegurua) Eusko Jaurlaritzak ordainduko du.

c) Bidaiarako eta prestakuntzarako poltsak: Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak ordain ditzake bekadunak egindako bestelako gastuak, betiere bekadunak burutu beharreko zereginarekin lotuta badaude, hala nola, ferietara joateko ostatua eta garraioa, prestakuntza-ikastaroak, egin beharreko merkatu-azterketarekin loturiko gastuak, dokumentuak erostea eta itzultzea, eta bere jardunarekin lotura zuzena duten bestelakoak.

5.2.– Nazioartetutako enpresetan eta nazioartekotzea sustatzeko beste erakunde batzuetan praktikak egiteko bekak.

a) Istripu-asegurua eta bidaiarako laguntzako aseguru osagarria Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak ordainduko du.

b) Praktikaldia atzerrian egiten bada, nazioartekotzea sustatzeko enpresa edo erakundeak ordainduko ditu dagokion herrialdera joateko eta handik etortzeko bidaia-gastuak.

c) Euskal Autonomia Erkidegoan zein atzerrian egiten diren praktikaldietan, nazioartekotzea sustatzeko enpresa edo erakundeak ordainduko ditu beste gastu batzuk ere, baldin eta jarduera- eta prestakuntza-planaren barruko lanak egitearren sortu badira gastu horiek. Horrez gainera, enpresak edo erakundeak bestelako osagarri ekonomiko batzuk ere ezar ditzake, bekaduna zein herrialdetan dagoen kontuan izanda.

## III. KAPITULUA
## PROZEDURAK

*6. artikulua.*– Prozedurari ekitea.

6.1.– Agindu honetan arautako nazioartekotze bekak emate aldera, hiru printzipio hauek erabiliko dira: publizitatea, lehiaketa eta objektibotasuna; bekak emateko, urtero deialdi publiko bana egingo da: bata, Kanpoko Merkataritzan adituak prestatzeko bekak emateko, eta, bestea, nazioartetutako enpresetan eta nazioartekotzea sustatzeko beste erakunde batzuetan praktikak egiteko bekak emateko.

Era berean, urtero, enpresen nazioartekotzea sustatzeko enpresei eta erakundeei zuzendutako deialdiak

*Artículo 5.*– Gastos subvencionados.

5.1.– Becas de Formación de Expertos en Comercio Exterior.

a) Quedarán englobados en la dotación de la beca, los gastos originados por:

– La adquisición de los billetes de ida y vuelta al país o zona geográfica de destino.

– La obtención del visado o permiso de residencia exigidos por las autoridades del país de destino.

b) Correrá a cargo del Gobierno Vasco la contratación de los seguros de accidentes y su complementario de asistencia en viaje a favor de cada becario.

c) Bolsas de viaje y formación: el Departamento de Industria, Comercio y Turismo podrá sufragar otros gastos en los que incurra el becario, directamente relacionados con el ejercicio de sus funciones en el destino de trabajo asignado, tales como alojamiento y transporte para visita a ferias, cursos de formación, gastos relacionados con los estudios de mercado a realizar, compra y traducción de documentos, y otros directamente relacionados con el ejercicio de sus actividades.

5.2.– Becas para realizar prácticas en empresas internacionalizadas y otros organismos de promoción de la internacionalización.

a) Correrá a cargo del Departamento de Industria, Comercio y Turismo la contratación de los seguros de accidente y el complementario de asistencia en viaje.

b) En el caso de que las prácticas se desarrollen en el extranjero, la empresa u organismo de promoción de la internacionalización abonará el coste del desplazamiento de ida y vuelta hasta el país de destino.

c) Tanto para las becas que se desarrollan en el País Vasco como para las que se desarrollan en el extranjero, la empresa u organismo de promoción de la internacionalización correrá con otros gastos que se deriven de las actuaciones que se encomienden al becario incluidas en el plan de actividades y formación. Además la empresa u organismo podrá establecer otro tipo de complementos económicos en función del país de destino.

## CAPÍTULO III
## PROCEDIMIENTOS

*Artículo 6.*– Iniciación de los procedimientos.

6.1.– Las becas de internacionalización reguladas por la presente Orden se otorgarán bajo los principios de publicidad, concurrencia y objetividad, y serán objeto de sendas convocatorias públicas y anuales: una para la adjudicación de las becas de Formación de Expertos en Comercio Exterior, y otra para las becas destinadas a la realización de Prácticas en Empresas Internacionalizadas y otros organismos de promoción de la internacionalización.

Asimismo, anualmente, se efectuarán las convocatorias destinadas a las empresas y organismos de promo-

egingo dira. Horien bidez erabakiko da ea zein enpresatan egongo diren Kanpoko Merkataritzan adituak prestatzeko, aurreko ekitaldian esleituta, beka lortu duten bekadunak, eta zein enpresatan egongo diren praktikaldian deialdiko ekitaldian bertan esleitutako beka lortu dutenak.

6.2.– Industria Berritzeko eta Garatzeko sailburuordeak egingo ditu deialdiak, eta, nahitaez, arau honetan ezarritakoari lotuta egongo dira:

a) Enpresak hautatzeko deialdian eskabideak aurkezteko epea ezarri beharko da; epe hori, argitaratzen denetik kontatzen hasita, ez da inola ere hilabetetik beherakoa izango. Era berean, adieraziko da nazioartekotzea sustatzeko enpresa eta erakundeetatik zenbat hautatuko dituzten praktikaldietarako, eta, zenbat izendatuko dituzten ordezko gisa.

b) Bekadunak hautatzeko deialdietan, berriz, zehaztuko da ea guztira zenbat beka emango diren, eta deitutako beka-moten arabera sailkatuko dira; horien ordezkoak ere izendatu behar dira. Horrez gainera, bekak finantzatzeko kredituen zenbatekoa eta eskabideak aurkezteko epea ere zehaztuko dira; epea ez da inola ere hilabetetik beherakoa izango, deialdia argitaratzen denetik kontatzen hasita.

6.3.– Urteroko deialdiak ebazpen bakar baten bidez egin ahal izango dira, jasotzaileen arabera: bekadunak izan edo enpresak izan. Gainera, enpresei zuzendutakoa denean, urteko deialdi bakar bat egin ahal izango da, era bateko zein besteko bekadunak hartu nahian, programa honetan parte hartzeko prest dauden enpresetatik hartu beharreko guztiak hautatzeko.

7. *artikulua.*– Eskabidea eta agiri osagarriak aurkeztea.

7.1.– Enpresen nazioartekotzea sustatzeko enpresen eta erakundeen eskabideak aurkeztea.

a) Enpresen nazioartekotzea sustatzeko enpresek eta erakundeek bekadunen lankidetza izateko aurkeztu behar dituzten eskabideak Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Nazioartekotze Zuzendaritzari zuzendu behar zaizkio. Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak lurralde historiko bakoitzean dituen lurralde-bulegoetan aurkeztu behar dira zuzenean, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean (azaroaren 26ko 30/1992 Legea) 38.4 artikuluan aurreikusitako beste edozein bitarteko erabiliz.

b) Enpresen nazioartekotzea sustatzeko enpresek eta erakundeek, eskabidearekin batera, honako agiriak ere aurkeztu beharko dituzte:

– Eskabidea egin behar duen pertsonari horretarako eskumen nahikoa eman zaiola erakusteko agiria.

– Esportazioei buruzko datuak: ustiapena, fakturazioa, kopurua eta atzerriko salmenta-tokiak. Era berean, bekaldia non burutuko den eta atzerriko zein ezarpenegituratan egongo den zehaztuko da.

ción de la internacionalización, para seleccionar aquellas que acogerán a los becarios que cuenten con una beca de Formación de Expertos en Comercio Exterior adjudicada en el ejercicio inmediatamente anterior, y aquellas que recibirán a los becarios beneficiarios de becas para realizar prácticas que se adjudiquen en el mismo año de la convocatoria.

6.2.– Las convocatorias se realizarán por el Viceconsejero de Innovación y Desarrollo Industrial, se ajustarán necesariamente a lo establecido en esta norma:

a) Las destinadas a la selección de empresas, precisarán el plazo de presentación de solicitudes que en ningún caso será inferior a un mes desde su publicación y el número máximo de empresas y organismos de promoción de la internacionalización a seleccionar y de suplentes a designar.

b) Las dirigidas a la selección de becarios concretarán el número global y el desglosado por tipos de las becas convocadas y de suplentes a designar; el importe de los créditos destinados a su financiación y el plazo de presentación de solicitudes que en ningún caso será inferior a un mes desde su publicación.

6.3.– Las convocatorias anuales podrán instrumentarse mediante una única Resolución, en función de los destinatarios: becarios o empresas. Además, en el caso de estas últimas podrá efectuarse una única convocatoria anual destinada a la selección de todas las empresas interesadas en participar en el programa recibiendo a uno u otro tipo de becarios.

*Artículo* 7.– Presentación de solicitudes y documentación complementaria.

7.1.– Presentación de solicitudes de las empresas y de los organismos de promoción de la internacionalización.

a) Las solicitudes de las empresas y de los organismos de promoción de la internacionalización para poder contar con la colaboración de los becarios, se cursarán en instancia dirigida a la Dirección de Internacionalización del Departamento de Industria, Comercio y Turismo y se presentarán en las Oficinas Territoriales de Industria, Comercio y Turismo de cada Territorio Histórico o en los lugares especificados en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

b) A la solicitud de las empresas y de los organismos de promoción de la internacionalización se acompañará, la documentación que a continuación se indica:

– Poder suficiente de la persona solicitante.

– Datos explotación, facturación, cifra y destino de las exportaciones y estructura de la implantación en el exterior en la que se va a desarrollar la beca.

– Hartu nahi den bekadunak izan behar duen titulazioa eta jakin behar duen hizkuntza.

– Bekadunak egin beharreko prestakuntza-plana, eta enpresan edo erakundean horretaz arduratuko den pertsonaren izendapena.

c) Eskabideak behar bezala bete gabe aurkeztu badira edo agindutako agiriren bat falta bada, 10 eguneko epea emango zaio eskatzaileari akatsak zuzentzeko edo falta diren agiriak aurkezteko. Gainera, ez bata, ez bestea egiten ez badu eskabideari uko egiten diola ulertuko dela jakinaraziko zaio. Halaxe agintzen du Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71. 1 artikuluan.

d) Bekarik gabe geldituko dira:

– Deialdian ezarritako epetik kanpora aurkezten diren eskabideak.

– Agindu honetan aipatutako baldintzak betetzen ez dituztenak.

7.2.– Bekadunen eskabideak aurkeztea.

a) Eskabideak Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Nazioartekotze Zuzendaritzari zuzendu behar zaizkio. Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak lurralde historiko bakoitzean dituen lurralde-bulegoetan aurkeztu behar dira zuzenean, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak aurreikusitako beste edozein bitarteko erabiliz.

b) Eskabidearekin batera honako dokumentazio hau aurkeztuko da:

– Curriculum vitaea.

– Administrazio-egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan izatea frogatzen duen ziurtagiria, eskaerak egiteko epea irekitzen den unea baino gutxienez 12 hilabete lehenagotik.

– Titulazioa egiaztatzeko, tituluaren fotokopia konpultsatua erabiliko da, edo honako dokumentu hauetakoren baten originala: 1) titulua, edo 2) titulua emateko eskubideak ordaindu izanaren frogagiria, edo 3) ikasketa-espedienteko nota, titulazioari dagokion proba orokorra gainditu izana eta titulua lortzeko eskubideak ordaindu izana adierazten duela.

Atzerrian edo publikoak ez diren Espainiako zentroetan lortutako tituluek homologatuta egon beharko dute, eskaerak aurkezteko epea irekitzen den unean.

– Egindako ikastaroen eta lanbide-esperientziaren ziurtagirien fotokopia konpultsatua. Eskabidea aurkeztean agiri bidez frogatu ezin diren ikastaroak edo esperientziak ez dira kontuan hartuko.

– Nortasun agiriaren fotokopia.

– Titulación e idioma del candidato solicitado.

– Plan de formación a realizar por el becario con designación de la persona responsable del mismo en la empresa u organismo.

c) Si las solicitudes no vinieran cumplimentadas en todos sus términos o no fueran acompañadas de la documentación exigida, se requerirá al interesado para que, en un plazo de 10 días subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 71.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, sobre Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

d) Serán causas de exclusión:

– La presentación de solicitudes fuera del plazo establecido.

– El no cumplimiento de los requisitos señalados en la presente Orden.

7.2.– Presentación de solicitudes de los becarios.

a) Las solicitudes se cursarán en instancia dirigida a la Dirección de Internacionalización del Departamento de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco y se presentarán en las Oficinas Territoriales de Industria, Comercio y Turismo de cada Territorio Histórico, o en los lugares especificados en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

b) A la solicitud se acompañará la documentación siguiente:

– Curriculum vitae.

– Documentación acreditativa de la vecindad administrativa en la Comunidad Autónoma del País Vasco con antigüedad superior a 12 meses en el momento de la apertura del plazo de solicitud.

– La titulación se acreditará mediante fotocopia compulsada u original de alguno de los siguientes documentos: 1) el título, o 2) documento justificativo de haber abonado los derechos para la expedición del mismo o 3) la nota reflejada en el expediente académico indicativa de haber superado la prueba de conjunto de la titulación correspondiente y de haber abonado los derechos para la obtención de la misma.

Los títulos obtenidos en el extranjero o en centros españoles no públicos deberán estar homologados en el momento de la apertura del plazo de solicitud.

– Fotocopia compulsada de los documentos acreditativos de los cursos realizados y de la experiencia profesional. No se valorarán aquellos cursos o experiencia que no estén justificados documentalmente en el momento de la presentación de la solicitud.

– Fotocopia del DNI.

– Nortasun agirikoaren tamainako bi argazki berri, izen-abizenak atzealdean idatzita.

– Antzeko bekarik ez duela izan adierazten duen zinpeko aitorpena, Agindu honetako 3.1.e artikuluan ezarritakoari jarraiki, baita sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik zigor administratibo edo penala ez izatearena ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 50.5. artikuluan xedaturikoari jarraiki, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen Azken Xedapenetatik Seigarrenean duen idazkeraren arabera.

c) Eskabideak behar bezala bete gabe aurkeztu badira edo agindutako agiriren bat falta bada, 10 eguneko epea emango zaio eskatzaileari akatsak zuzentzeko edo falta diren agiriak aurkezteko. Gainera, ez bata, ez bestea egiten ez badu eskabideari uko egiten diola ulertuko dela jakinaraziko zaio. Halaxe agintzen du Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak bere 71. 1 artikuluan. Aipaturiko Legea urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu du.

d) Bekarik gabe gelditzuko dira:

– Industria Berritzeko eta Garatzeko sailburuordeak horretarako urtero egindako deialdian ezarritako epetik kanpora aurkezten diren eskabideak.

– Agindu honetan aipatutako baldintzak betetzen ez dituztenak.

***8. artikulua.***– Hautaketa-prozedurak.

8.1.– Enpresak aukeratzea:

a) Nazioartekotzea sustatzeko enpresa eta erakundeek eskabideak aurkezteko epea bukatutakoan, Hautaketa Batzordeak (Nazioartekotze zuzendariak eta Zuzendaritza horretako bi teknikarik osatuta dagoela), lankide izango diren enpresa eta erakundeak hautatzerakoan, bekadunentzako prestakuntza-plan egokia eratu dutenak hartuko ditu, eta bazterrean utziko ditu, berriz, deialdi honekin lortu nahi diren helburuak erabat betetzen ez dituzten proposamenak.

Era berean, hautatuak izan ez direnak aintzat hartuta, ordezko izango diren enpresen zerrenda bat osatuko da, enpresaren batek edo bestek praktiketarako izendatu zaion bekadunari uko egiten badio ere.

b) Hautatutako enpresa eta erakunde lankideek lankidetza-hitzarmena izenpetuko dute Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailarekin. Hitzarmen horretan, praktikaldia garatzeko baldintzak zehazteaz gainera, azalduta geratuko da ezin dutela lanharremanik izan bekadunak eta lankide den enpresak edo erakundeak.

– Dos fotografías recientes tamaño carnet, con el nombre al dorso.

– Declaración jurada de no haber sido beneficiario de becas similares, de acuerdo con lo establecido en el artículo 3.1.e de esta Orden, y de no estar sancionado administrativa o penalmente por haber incurrido en discriminación por razón de sexo, de acuerdo con lo establecido en el artículo 50.5 de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, de conformidad con la redacción dada al mismo por la Disposición Final Sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

c) Si las solicitudes no vinieran cumplimentadas en todos sus términos o no fueran acompañadas de la documentación exigida, se requerirá al interesado para que, en un plazo de 10 días subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 71.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, sobre Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por Ley 4/1999, de 13 de enero.

d) Serán causas de exclusión:

– La presentación de solicitudes fuera del plazo establecido, a tal efecto, en la convocatoria anual a realizar por el Viceconsejero de Innovación y Desarrollo Industrial.

– El no cumplimiento de los requisitos señalados en la presente Orden.

***Artículo 8.***– Procedimientos de selección.

8.1.– Selección de las empresas:

a) Finalizado el plazo de presentación de solicitudes para las empresas y organismos de promoción de la internacionalización, el Comité de Selección (compuesto por la Directora de Internacionalización y dos técnicos de la Dirección) seleccionará las empresas y organismos colaboradores que hayan diseñado un plan de formación idóneo para los becarios, rechazando cuantas propuestas no se adecuen plenamente a los objetivos perseguidos por la presente convocatoria.

Asimismo, se designará una lista de empresas suplentes de entre las no seleccionadas, con el fin de cubrir posibles renuncias por parte de las empresas a disponer del becario que le ha sido asignado para el período de prácticas.

b) Las empresas y organismos colaboradores seleccionados suscribirán un Acuerdo de Colaboración con el Departamento de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco, en el que además de explicar que no se dará relación laboral entre el becario y la empresa u organismo colaborador, se especificarán las condiciones de desarrollo de la práctica.

8.2.– Bekadunak aukeratzea:

Beketarako eskabideak aurkezteko epea bukatutakoan, eta 7.2.c artikuluan ezarritako izapidea beteta, bekadunak hautatzeko prozedurari ekingo zaio beka-modalitate bakoitzean:

a) Lehendabiziko proba hautagai guzti-guztiei egingo zaie, beka-modalitatea zein den alde batera utzita, eta jakin beharreko hizkuntzen azterketa izango da, idatzizkoa eta ahozkoa. Hizkuntza-azterketa horiek noiz egingo diren aurretiaz jakinaraziko da jendaurrean Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren lurralde-bulegoetan. Kanpoko enpresa edo erakunde baten esku utz daiteke proba hauek baloratzeko ardura.

b) Hautagaiek, goi-mailako tituludunak badira eta atzerriko bi hizkuntza edo gehiagotako azterketak gainditu badituzte, aurrera jarraituko dute Kanpoko Merkataritzan adituak prestatzeko bekaren bat eskuratzeko hautaketa-prozesuan.

c) Hautagaiek, goi-mailako tituludunak badira eta atzerriko hizkuntza bateko azterketak gainditu badituzte, aurrera jaraituko dute nazioartetutako enpresetan eta nazioartekotzea sustatzeko beste erakunde batzuetan praktikak egiteko bekaren bat eskuratzeko hautaketa-prozesuan.

d) Hautagaiek, erdi-mailako tituludunak badira eta atzerriko hizkuntza bateko edo gehiagotako azterketak gainditu badituzte, aurrera jarraituko dute nazioartetutako enpresetan eta nazioartekotzea sustatzeko beste erakunde batzuetan praktikak egiteko bekaren bat eskuratzeko hautaketa-prozesuan.

8.2.1.– Prozeduraren berezitasunak:

A) Kanpoko Merkataritzan adituak prestatzeko beketarako.

A.1.– Hautaketa Batzordea.

a) Ebazpena ematea dagokion organoari igorriko dio Hautaketa Batzordeak bere proposamena. Hona hemen batzorde horretako kideak:

– Enpresak Nazioartekotzeko zuzendaria, edo hark izendatutako pertsona. Bera izango da batzordeburu, eta berak erabakiko du auzia, berdinketa gertatuz gero.

– Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko ordezkari bat, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuak izendatua.

– Euskal Herriko Unibertsitateko ordezkari bat, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuak izendatua.

– Euskadiko merkataritza, industria eta nabigazioko ganbera ofizialetako ordezkari bat, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuak izendatua.

8.2.– Selección de los becarios:

Finalizado el plazo de presentación de solicitudes y substanciado el trámite previsto en el artículo 7.2.c, se iniciará, en cada modalidad de beca convocada, el proceso de selección de los candidatos:

a) La primera prueba, que se efectuará conjuntamente a todos los candidatos con independencia de la modalidad de beca solicitada, consistirá en un examen oral y escrito de los diferentes idiomas. Las fechas de celebración de las pruebas de idiomas se harán públicas a través de las Oficinas Territoriales de Industria, Comercio y Turismo. Podrá delegarse en una empresa o entidad externa la valoración de estas pruebas.

b) Los candidatos que sean titulados superiores y hayan superado los exámenes de 2 ó más idiomas extranjeros continuarán en el proceso de Selección de las Becas de Formación de Expertos en Comercio Exterior.

c) Los candidatos que sean titulados superiores y hayan superado los exámenes de 1 idioma extranjero continuarán en el proceso de Selección de las Becas para realizar Prácticas en Empresas Internacionalizadas y otros organismos de promoción de la internacionalización.

d) Los candidatos que sean titulados medios y hayan superado los exámenes de 1 ó más idiomas extranjeros continuarán en el proceso de Selección de las Becas para realizar Prácticas en Empresas Internacionalizadas y otros organismos de promoción de la internacionalización.

8.2.1.– Especificidades del procedimiento:

A) Para las becas de Formación de Expertos en Comercio Exterior.

A.1.– Comité de Selección.

a) Estará compuesto por las personas que a continuación se designan y elevará propuesta al órgano competente para resolver:

– El titular de la Dirección de Internacionalización, o persona en quien delegue, que ostentará la Presidencia del Comité y dirimirá con su voto los empates.

– Un vocal en representación del Departamento de Industria, Comercio y Turismo, nombrado por el Consejero del Departamento de Industria, Comercio y Turismo.

– Un vocal en representación de la Universidad del País Vasco, propuesto por esta y nombrado por el Consejero del Departamento de Industria, Comercio y Turismo.

– Un vocal de las Cámaras Oficiales de Comercio, Industria y Navegación del País Vasco, propuesto por estas y nombrado por el Consejero de Industria, Comercio y Turismo.

– Idazkari bat (hitz egiteko eskubidearekin baina botorik gabe), Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuak Saileko teknikarien artean izendatua.

b) Hautaketa Batzordeak aginte osoa du erabakiak hartzeko. Erabakiak hartzeko, botazioa erabiliko dute kideek. Artikulu honetan aurreikusten ez diren kasuetan, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen II. tituluko II. kapituluan ezarritakoa aplikatuko da.

A.2.– Irizpideak.

Batzordeak ondorengo irizpideak hartuko ditu kontuan izangaiak balioztatu eta hautatzeko:

a) Atzerriko hizkuntzen ezagupen-maila, artikulu honen 8.2.a eta b) idatz-zatian oinarritutako proben arabera.

b) Beka mota hau jasotzeko, ezinbestekoa da goimailako titulazioa izatea.

c) Hizkuntza-azterketak gainditu dituzten hautagaientzat, hizkuntzak eta curriculuma hartuko ditu Batzordeak balorazio-irizpidetzat, honako baremo honen arabera:

1. hizkuntza: %35.
2. hizkuntza: %25.

Curriculuma: %40 honako hauek baloratuko dira, bereziki: ekonomia eta enpresa zientzietako edo ingeniaritzako titulazioa izatea, kanpo-merkataritzarekin loturiko ezagutzak izatea eta euskara jakitea.

Urteko deialdiaren ebazpenean zehaztuko dira irizpide bakoitzean baloratuko diren alderdiak eta horien ponderazioa. Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren lurralde-bulegoetan jakinaraziko dute hautagai bakoitzaren balioztapena.

A.3.– Prozedura.

a) Hautaketa Batzordeak prozesuko hurrengo probetara aurkezteko deialdia egingo die puntu gehien lortzen duten izangaiei (100 gehienez), Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren lurralde-bulegoetako iragarki-taulen bidez. Proba horien artean, elkarrizketafasea nabarmentzen da. Izan ere, elkarrizketan aztertuko da ea izangaiek bekak dituen eskakizunak eta ezaugarriak betetzen dituzten.

Baldin izangairen batek 100. izangaiak lortutako puntuazio bera lortzen badu, hurrengo probetara deituko dute hori ere.

b) Prestakuntza eta hautaketarako ikastaroa egiteko aldez aurreko hautaketa bat egingo du Batzordeak, bekadunak eta ordezkoak bereizita. Ordezkoen kasuan, ordezkapen-hurrenkera adieraziko da.

Hasiera horretan hautatutakoen zerrenda jendaurrean azalduko da, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren lurralde-bulegoetan. Izangai horiek idatziz ja-

– Un Secretario con voz y sin voto, designado, de entre los técnicos del Departamento citado, por el Consejero de Industria, Comercio y Turismo.

b) El Comité de Selección será soberano en la adopción de sus acuerdos, que se llevarán a cabo mediante el procedimiento de votación. En lo no previsto en este artículo será de aplicación lo establecido en el Título II Capítulo II de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

A.2.– Criterios.

El Comité deberá tener presente las siguientes consideraciones para la evaluación y selección de los candidatos:

a) El nivel de conocimientos de idiomas extranjeros acreditado según las notas obtenidas en las pruebas realizadas en base al apartado 8.2.a y b del presente artículo.

b) Es requisito necesario para este tipo de beca disponer de una titulación superior.

c) Para los candidatos que hayan superado las pruebas de idiomas, el Comité aplicará, como criterios de valoración, los idiomas y el currículo, de acuerdo con el siguiente baremo:

1.er idioma: 35%.
2.º idioma: 25%.

Curriculum: 40%. Se valorará especialmente la titulación en ciencias económicas y empresariales o ingeniería, los conocimientos relacionados con el comercio exterior y los conocimientos de euskera.

